

Epistemolojia, Eliztia (Gramatika) ta Matematika

A) IZAN aditza

IZAN aditzak ez du esangura berdiña ta erabatekoa ta orobatekoa Lojikaz, Matematikaz eta Gramatikaz.

Ar dezagun lenbizi esakun au: «gizona ez da abere utsa». Esakuna Lojikako aburua (juicio) da. Lojikako aburuak bi bazterefeko itzak —gizona ta abere utsa/nolabait bat egiten ditu. Obeto esan, bayezkoa ba'da esakuna, bat egiten ditu. Ezezkoa baldin ba'da, bien idekotasuna ukatzen du. Materialki, noski, ez ditu bat egiten, lenengo itzak iru izki ditu, ta bigaenak bost ditu-eta. Beraz, bi gogayeretan dauntzan formalgaya ipintzen du aldez alde: ots, adidun aberea ta adigabeko aberea. Edota norkia (sujeto) ta eratzikia (abere utsa). Eko edo ezetz esan afen, ez direla batbera gizona ta aberea esatean, idekotasunaren arian esaten du. Norkia (gizona) ta eratzikia (abere utsa) berariz ideko egiten ditu edo idekotasuna ukatzen du. Orenbeste gertatzen da Lojikako aburuan. Orixe bai da jakintza oren zeregiña.

Adizu, baña, Lojikabidean IZAN aditzaren beralakotasuna ta bereizitasuna ontan dauntza: ez dula esaten «orain» orela danik edo ez danik. Ezta ez du esan nai, igaztaldian orela izan danik edo izan ez danik. Ezta ez du esan nai, etorkizunean gizona abere utsa izanen danik ala ez danik. Beraz, Lojikak IZAN aditza erabiltzean, ez du orañaldirik, ez igaztaldirik, ez etorkizun aldirik. Zergunari edo esenziari dagoka, ta zerguna edo esenzia beti batekoa ta erabatekoa ta aldaeziña izanik, EZ DA edo DA esatean, aldirik ez du adirazten. Ez du adirazten ez oraingorik, ez lengorik, ez gerokorik. Betikoa da esakunaren egia, betikoa da esakunaren arabera gertatzen dana, ta edonun ere olaxe da. Edonun eta edonoiz, aldaeziñik, gizonaren esenzia eta abere utsaren zerguna batbera ta idekoa EZ DA. Abere utsa ez da gizona, ba' diño, abere utsik ez dala izan iñoiz gizona, esan nai du. Orain ere ez dala, esan nai du. Ta ez dala beñola izanen, bayesten du. Ain zuzen, Lojikaren esatez, DA edo EZ DA, beti orañaldikoa da, baña Gramatikaz esanda. Ez du Lojikak «orain» aldirik baizen, baña Gramatikaren legez du, ez berez. Esaldia, IZAN aditzik ez dun heberkerak bezela, onela litzake: «gizona, adidun aberea». Orezkeroz, adimenak esaten du bere artean Gramatikak baño lenago, «gizona, adidun aberea». Oraindik zeatzago esan, Filosofiak zeozer «izangai (izakai)» ote dan ala ez, orixe soilik galdetzen du eta aztertzen.

«Landarea ez da aberea» esaten ba'digu, aburu ořek ezetz esaten duna, betiko gertaera da. Ez dala ez ezen, ezin ditekela izan ere, esaten du. Izan-gaya (izakaya) da eziña. Izateko da, ba, eziña. Izateko gaya da aditzeko eziña. Landarea ta aberea aitatzean, erabateko ta orobateko zergunari edo esenziari dagoka. Beingoan DA ala EZ DA. Zergatik? Zergunak edo esenziak aburuan —gogayerak ez bai du olakorik—, ez bikařezkorik (dual), ez askařezkorik, ez dulako, ain zuzen. Formalgaya beti bat geratzen da. Adimenekoak ez du ez geyagorik, ez gutxiagorik. Beingoan DA ala EZ DA.

Esaizu adibidez «los animales (brutos) no son racionales». Esakun edo aburu ortan, agi da, Gramatikak onela adirazi nai dula: Onelako ta olako ta alako abereak izatez eta yardutez ikusten ditugunak eta eizean eraxten ditugunak ez dire adidunak. Olako ta alako ook izatez eta yardutez (en realidad) aipatzen dire, ta ez dute formalgairik erakusten. Ořela da Gramatikaren izkera izkuntza. Lojikaren aburua, zuzenenik eta beralakoenik, onela da: «el animal (bruto) no es racional». Lojikaz (orain ez gera ari Semiotikaz) Metafisika alabeařezkoa dan ezkerro, zergunari gagozkio, ta —lògos— biłatzen dun ezkerro, formalgaya biłatzen du. Orixe da, ba, —lògos— edo zerguna. Beti bat, beraz, dan ezkerro zerguna edo formalgaya, naiko da onela esatea, ta zuzen esan ere esaten da: «el animal (bruto) no es racional». Edo berdin dana, bi gogai oyen formalgaya elkařeziña da. Orixe da Lojikaren meta-izkuntza.

Matematikaz ari ba'zera, betiz, jakintza onen DA edo EZ DA, lojikazkoaren arikoa, antzekoa ba'da ere, ez da. Matematikaren Baiko edo Eko ta Lojikarena ez dire berdiñak. Matematikak, ba, ikuřak erabiltzen ditu. Lojikak ere erabiltzen ditu bere gogayerak adirazteko, bañan erabateko zergunak edo esenziak ba direlakoan, ari da. Matematikak, ordea, neuřia adirazten du, kaizua ezaguerazten du. Matematikak beti ikuřak edo sinbolo utsak erabiltzen ditu. Aneurkin bat eta anei neurkin berdin da, esaten ba'du, bi neuři orien kaizua dala berdiña, esan nai du. Matematikak $A = A$ esaten ba'du, baldintza bakoitzean zerořek asmatzen dizkiozun neuřiak edo kaizua berdiñak direla, esan nai du. Ořela, aipatu bezelaxe, izan diteke ta izan ez diteke, A ta A ikur utsak edo sinboloak bai dire. $A = A$ izatekotan, zuk zerořek lenbiziko $A = 4$ biurtzen dezu edo ulertzen dezu, ta bigařen $A = 4$ asmatzen dezu. Ořela izatera, soilki da $A = A$.

Lojikaz, beriz, $A = A$ esatean, zera A ta zera A batbera direlakoan bayesten dituzu. Izateaz, diñozu, direla ideko, ez neuřiaz, ez kaizua. $A = A$ Lojikaz esatean, Idetasun Asoña (Principio de Identidad) aipatu dezu. Agi danez, Asoin ori Izateari dagoka, BA DAN edozeri. Ezin ditezke Matematika ta Lojika Jakintzak batean naastu. Bakoitzak bere bidea du, bide bereizia, bere meta-izkuntza du. Ta Matematikaz ari ba'zera, $a > b$ esaten ba'dezu, zuk zerořek $a = 5$ giten dezulako da, ta $b = 3$ giten dezulako izanen da

alaxe. Alderantziz asma ezazu $a = 3$ ta $b = 5$, ta okeñik esango dezu goragokoa. Neuria da, ba, ortan aldez alde ipintzen dezuna. Bañan ez dezu aldez alde zergunarik edo esenziarik ipintzen. Aldaeziña danez zerguna edo formalgaya, ezin bai dezu olakoxe baldintzik Lojikalz asmatu. Ikur utsa, ba, Matematikarena, ta ikuritzza, Lojikalrena, ez dire batbera, ez dire baterikoak, ez doaz bide batetik. Lojikalz, esan bezela, $A = A$ beti gertatzen da, betikoa da, ez du baldintzarik bear olaxe izateko, zergunari ta Izateari dagoka-eta. Matematikal bere izkuntza du, ta Lojikal ere berea du. Ezin ditezke bi ook, Semiotikal artarakoxe sayaketaz ari dan a'ren, bategin.

Semiotikal ere ikur utsetan nai ditu gauzak alertu. Zergunik ez da Semiotikalaren iritzietan, enpirismuan eta neo-positibismuan ere ez dan bezelaxe. Izenak (nomina) utsak dire, itz pitzak (flatus vocis) utsak dire. Ockham'en nominalismuak iñon bezela, pñaketa baten ikurak dire. Dabid'en iza'ra daraman ikurñak Ixrael gogarazten digu ayen aukerara. Ander Deunaren gurutza daraman beste ikurñ onek Euzkadi gogarazten du gure aukerara. Matematikalaren meta-izkuntza erabili nai luke Semiotikal Lojikalz ere. Descartes'en mathesis vera ekañi nai luke Lojikalra. Baña Matematikalaren ikurak gizon bakoitzak aukeratuak dire, ta olako bidetik jo ezkeru, itzen bitarikotasuna sortuko litzake. Itzen tohu wabohu ta naste bo'aste litzake. Ta ikurak eta sinboloak edozeñek aukera bezelakoak lirakenez, baita Moralbidea, ta Edertigintza ta Efigintza ere berebateko ta aukerako sinboloetan naaspiñatuko lirake. O'ela izatera, ta ikur utsak baño besterik ez ba'litz Lojikal, Yarduki Asoña (Principio de Contradicción) ez litzake zutik izango. Geyenik, ba, Matematikal esan lezakena, onenbeste da: «batberakin berdiñak egiten diren beste bi edozer, bi ook ere berdiñak dire». Berdiñak, noski, kaizuz eta neurñiz, ez Izatez. Izatearen ajolik ez zayo Matematikalari. Gizona gizona bezelakoa da, esatean, ba, ez degu esan nai bata bestea baño kaizu aundiagokoa edo burezufe'z kaizu berdiñekoak direnik. Bi gizonen zerguna idekoa dala esan nai degu, ta beraz, giza eskubideak berdiñak direla danenak. Aristotel'ek ontan itz egiten du, «gizon» itza «gizon» gogayeraren «suppositio» dala, diñonean. Sub-ponit, ba, bata bestearen «ordez» ipintzen da, ta orde'z ipintzeko bataren eta bestearen gogaya, edaeraz eta batez ere sakoneraz, ideko da. Adibidez, Belde'rain esatean, ikuritz askotarikoa da, ta egitan izan ere. Belde'rain, ba, Gramatikari ba'zagoka, izena da. Otsorkunez edo fonetikaz iruko izkia da. Belde'rain Lojikalz beralako ta bakoitzalako gogayera da. Belde'rain izatez eta yardutez (en realidad) euzko gudari bat da. Delako Aristotel'en suppositio'rik ez ba'ledi, Lojikal ez luke gertakun bakoitzean bakoitzarekiko (concreto) ikuritzik izango.

Ikus dezagun suppositio'rik gabe zer liteken egia, Lojikalaz eta Semiotikalaz, eta zer liteken okeña. Entzuizu adibide au:

Pernando Amezketaña axeria da
 Axeria, baña, oño lapuña da
 Beraz, Pernando Amezketaña oño lapuña da.

Lojikalaz gaizki asmatutako gogartea da. Zergati, baña? Itzek eta gogayek, ain zuzen, suppositio'z aintzat ematen direlako. Gogayera bakoitzak bere osteordekoa dulako. Pernando Amezketaña, noski, «axeria» ba'da, itz ofen osteordekoa «nolakotasuna, axeriaren ayuñia» da. Lojikalaz, ba, gizona ez da axeria. Bata adidun aberea, ta bestea adigabeko aberea bai da. Gero, beñiz, axeria oño lapuña ba'da, adigabeko aberea da, ez da axerikeria, ta lau ankako aberea da. Ofela, ba, lau suppositio edota osteordeko ditugu: Pernando, axerikeria, axeria, ta oño lapuña. Beraz, lau gogayerazko gogartea okeñik jalki da. Beraz, Pernando Amezketaña, exerikeriz yarduten ba'du ere berak, oño lapuña danik ez da ateratzen. Ta Pernando Amezketaña axeria bera ta adigabeko aberea ba'ledi, olakotan bai izango litzake oño lapuña, baña bestelan ez. Ez da, ba, axeri aberea. Pernando Amezketaña, gañera, ez da izkuntzetako Mr. Renard, Mrs. Fox edo Herr Reinhardt. Goragoko gogartea, ba, axerikeritan asmatutakoa da. Zergati, ba, dator okeñik asmatuta silojismoa? Zergatik, mintzatzen ari danaren asmotan Pernando Amezketaña itza, axeri itza (bitarikoa) ta oño lapuña itza suppositio'etan edo osteordekoetan esaten direlako. Suppositio delakoetan edo osteordekoetan, ta ez bestelakoetan, dute esangura. Olako esangurarik ez ba'lute, beñiz, ausaz zuzenik asmatuta legoke gogartea. Gizadimena Lojikaren bidez bere bidean zuzen doa. Bide zuzenik ez galtzeko, beñiz, mugañiak bear ditu adimenak, nundik jo ta nundik ez jo, jakiteko. Ortarakoxe alabeañezkoa da «osteordekoa» edo delako suppositio. Bide zuzena, ba, argitzen du Lojikalaz. Baña bitartean bidagurutze aunitz dauden ezkerro, zabar diteke adimena. Gramatikak esan dezake Pernando Amezketaña axeria da. Bañan ez Lojikalaz. Semiotikaren ikur utsetan, ikuñak ikur eta sinboloak sinbol, edozein bidetik jo dezake adimenak. Ezta adimenak ere, noski, egiz Semiotika osoa Nominalismuaren zentzumenekikoetan agortzen da-eta. Nominalismuak, beñiz, ta enpirismuak eta neo-positibismuak irudi bizkietan, eta irudi bizki zentzumenekikoetan, noski, dute beren yardubide osoa. Lojikalaz gogayeren edaeraz eta sakoneraz bere meta-izkuntza du, ta bide zuzenetik doa. Semiotika, beñiz, bere ikur utsetan naasten da, bere meta-izkuntza du, baña Lojikarena baño bestelangoa. Ta ez dakigu bide zuzenetik ote doan ala ez. Ofegatixe, ba, alda dezake Morala, Edertigintza ta Erigintza. Adizu ondo, gero, aldatu esaten dute, ez bidean auferatu, ez bilbaketaren bultzakadaz Morala, Edertia ta Erigintza areago aztertu edo argiago biurtu edo bidean auferagotu. Edo nai izan ezkerro, baita onenbeste ere esan deza-

kezu: Semiotikak bestelango bide bat ediren du. Bañan ez da Lojikarena, alegia. Ez esan, ba, Lojika ta Semiotika batbera direnik.

Ezaguna da Leintz'en «Axeri» basefia. Ango etxejauna «Axeri Jauna» zan. Mutikotan olaxe deitzen zioten, eta sagar lapuřetan ari zirela, «ba jatok Axeri, ... Axeri'k txakurakin jařaitu yauskuk...» esaten zuten. Emazu basefi artako ugazaba Pernando Amezketarřa zala. Beraz, berdin da Pernando Amezketarřa ta «Axeri Jauna». Olako ortan, Pernando Amezketarřa esan eta Axeri Jauna esan gizon berbera ta bakoitzalakoa ulerterazten degu. Ořezkeroz, Axeri Jaunak ořo lapuřetan ziardula esan eta Pernando Amezketarřak ořo lapuřetan ziardula, egia da. Zergatik? Suppositio eta osteordekoa berbera dalako. Beraz, zuzen esango zenuke onela: Axeri Jauna ořo lapuřetan ari da. Axeri Jauna, bařa, Pernando Amezketarřa da. Beraz, Pernando Amezketarřa ořo lapuřetan ari da. Zuzenik esaten da gogartea, gogayera orien osteordekoak aintzat ematen ba' ditugu. Ez, ordea, itz utsak eta ikur utsak baldin ba'dire.

Gramatikak bere izkuntza du, ta izkera izkuntza leritzayoke. Ez litzake izango meta-izkuntza, Matematikarena bezelakoa. Ez litzake izango meta-izkuntza, Lojikarena bezelakoa. Adibidez, Gramatikaren legetan ongi geniar-
duke gizonari «Axeri» deitzean. Ta onela esango genuke «Axeri'k etxea eraiki du». Ta egiz esango genuke ta zuzen esan ere esakun ori. Bařa Lojikaz, agi danez, okefik jalkiko genuke esakuna. Gizona, gizon danez, adidun dalako. Lojikaz ezin diteke esan onela ere: «ořoko ořen buru biribilak lau ertz ditu». Lojikaz, ba, ezin ditekena da (batera) batetan biribiřa eta erztuna izatea. Eziņa da alako gogaya, bere ezaugařu biak elkaręziņak bai dire. Paradoja da, zera, adimenak uler dezakena bařo aruntzagokoa da. Ez da irixten adimena Lojikaren bidetan ořenbeste esateraņo. Bařa Gramatikaz ederto bezin pařegafi dator esanda, norbaiten buru borobilak lauokokodia dirudila. Ortze zio, pa, izkera izkuntzaren gařa! Lojikaren meta-izkuntzak ezin du esan ořenbeste. Ezta ezin du ořenbeste esan Matematikaren ikuřak edo sinboloak. Matematikak bere arauetan eziņa ta ditekena guztiz bereizten ditu. Adibidez, A ta B berdiņak dire. Bařan A ta C ez dire berdiņak. Beraz, A ta C ez dire berdiņak. Neuřiz eta kaizuz bere erara esango du Matematikak meta-izkuntzaz. Bařa pařetxuriz eta ironiaz ezin dezake Gramatikak bezela itzegin, onela: «Lau zoko ditun iruko zokodia!». Ezin diteke esan Matematikaz Pernando Amezketarřa Axeria da. Bitarteko uztardurarik, ba, ezin du esamaņetan atzi. Esan dezake, bai, Pernando Amezketarřa gizandia da, ta ořenbeste kilo eman ditu aztakiņean. Asto batena bezelaxe eman dezake gizonak kaizua ta neuřia. Bařa Pernando Amezketarřa Axeria da esatean, ez du neuřirik, ez du formularik, ez du esamaņik. Gramatikarena da ořenbeste esatea. Ta ořenbeste esatea ez da Lojikarena, ez Matematikarena.

Orezkeroz, Gramatikak esan dezake Fernando Amezketaña gizona da. Ta izatezko ta yardutezko (real) gizon alakotxea esan nai du. Bakoitzalako ta lanean izerditzzen dana, mintzatzzen dan kaizu aundiko baseñitar orixe da. Lojikak ere esan dezake: Fernando Amezketaña gizona da. Baña gizona «adidun aberea» esan nai du, ta gogayera utsa da, ta adimenekoa «adidun aberea». Gramatikak esan dezake Fernando Amezketaña etoñi da. Ots, onelakoxe gizon bakoitzalakoa etoñi da. Baña Lojikak ezin dezake esan «gizona etoñi da». Lojikazko gizonik, gogayera utsa dalako, ezin da etoñi, ez joan, ez ibili, ez egafi izan, ez gose izan. Gramatikaz esan dezake: Fernando Amezketaña Axeria da. Baña Lojikak ezin du esan oñenbeste. Fernando «gizona, adidun aberea» da-eta. Gramatikaz esan diteke: «Uñegofizkoa (da) Eden'go zugaitza!» Baña Lojikak ezin dezake jalki oñenbeste, landarea ta zizigabea baterikoak ez dire-eta.

Ar dezagun orain onenbesteko esakuna: A) «La mayoría es protestante». Gramatikaz norkia (sujeto) idoroteko, aditzari begiratu bear zayo. Aditza nola, norkia ala. Aditza «es» da. Beraz, galdera egin dezagun: nor da, quién es? Erantzuna: «la mayoría». Orezkeroz, norkia bilduma da, ta ez banangoz artua. Eñi bateko alderdi geyena protestantea da, esan nai du. Lojikaz onelakoa da esangura: «(Toda) la mayoría es (parte de los, algunos) protestante». Lojikaz, ba, «la mayoría» gogayera «danekikoa, orokoña, erabatekoa» da. Ipin ezayozu beste sinkategorema au: «ALGUNA mayoría es (parte de los, algunos) protestante». Esakun ori, norkiari begira, orain «zenbaitena, batzuen» da. Ez da aũekoa bezela, «danena, orokoña, erabatekoa». Orezkeroz, onela esan: «la mayoría» ta beste onela esan «toda la mayoría» esakun batbera da Lojikaz. Sinkategorema ori ipin dakiokelako, noski, Lojika arauz. Jakintza onek DA (ES) esaten dunean, beti egiaren bila, eta ain zuzen be, egiaren bila uts utsik yarduten du. Orixen da bakañik Lojikaren elburua. Egia, beñiz, adimenari dagoka. Lojikak adimenaren gorabeera aztertzen du, ta orixen bakañik aztertzen du. Adimenaren bidean ari da. Ez dio ajolik esakuneko aridura, nayera, lañimiña, iguintza... adirazterik, onenbesteko au Gramatikarena da-eta. Sikolojiako gorabeera Gramatikak adiraziko dizu, ez Lojikak, egiaren arian itz egin ezik.

Gramatikak, ordea, esaniko esakun ori: «la mayoría es protestante» aztertzen ba'du, onela adiraziko du: «los más, muchos (de tal pueblo) son protestantes». Bañan ez du esaten «toda la mayoría», Lojikak bezela. Oñela, ba, «alguna mayoría» adirazten du Gramatikak «los más, muchos» diñonean. Agi da, ba, Lojikaren aldetik eta Gramatikaren aldetik, esakun oñek, norkiari begiratura, bi esangura dituztela, edo batbera, beintzat, ez dutela adirazten. Gramatikak, ortaz gañera, onela ere oyuka adiraz dezake: «La mayoría es protestante!!!». Alako oyuan, nunbait, geyenak protestanteak ditezela izan, eskatzen du, edo bere nayera ta gurari bat agertzen du, edo ortodokso-

rik ez dula nai oyuka erakusten du. Gramatikaren izkera izkuntza orixe da. Lojidak, ez Matematikak, ez du izkera izkuntzik, meta-izkuntza baizik.

Emazu orain beste esakun au: B) «La mayoría son protestantes». Ondo ta zuzen esaten da. Aditza SON da. Beraz, dagigun galdera; «nortzuek dire?» quiénes son? Norkia, agi da, «protestantes» dala. «La mayoría», mugaizkia dun aŕen, ez da aditzaren norkia, aditza askaŕez dago-eta. Beraz, onela esan diteke, Gramatikaz, jakiña: «Protestantes son la mayoría». Baita onela ere: «Protestantes son mayoría». Bietan, ba, «protestantes» itza da SON aditzaren norkia.

Lojidak esan bezela, ez du Gramatikaren izkera izkuntza. Bere meta-izkuntzan Lojidak, norkiari begiratuta, betibateko egiari darauntsa, ta onela diño: (Toda) la mayoría es parte de los, algunos, protestantes». Edota: «Toda la mayoría son algunos protestantes». Esakuna, ba, bayezkoa da, ta beraz, eratzikia (predicado) «zenbait dire, zenbait protestante, protestante batzuek».

Gramatikaren esakuna onela izan da: «protestantes son la mayoría».

Lojikaren esakuna onela da: «ALGUNOS protestantes son la mayoría». Ikus ezazu, baña, beti dala esakunen norkia «protestantes, parte de los protestantes, algunos protestantes». Aditza salean «son, son, es» norkiari dago-ka. Oŕezkeroz, B) «La mayoría son protestantes» esaldian, «protestantes» da norkia.

Emazu orain esakun au: C) «La mayoría es PROTESTANTES». Agi da, gaizki dagola Gramatikaz esakuna. Orain lenagoko bildumarik ez da, auŕeko esakunaren antzera «protestantes» itza bai da norkia. Ta gaizki baldin ba'dago, ain zuzen, aditza norkiari ez dagokalako, da. Ar itzazu, ba, iru gramatikazko esakun oriek:

La mayoría es protestante (Ondo)
 La mayoría son protestantes (Ondo)
 La mayoría es protestanteS (Gaizki)

Iruretan berbera da beti «la mayoría» gogayera. Alaz ere, «protestantes» esaten danean, aditza ez datorkio egoki. Beraz, «protestantes» itzaren mendean dago aditza. «Protestantes» da norkia.

Lojikaz, beŕiz, beti bezela geratzen da, egia uts utsik esatea bai da bere elburua. «(Toda) la mayoría es (parte de los, algunos) protestantes». Edota onela: «ALGO protestante es la mayoría». Ta Gramatikaz «Protestantes son la mayoría». Ikus ezazu bidenabaŕez bi oyen bereizgoa. Lojidak ALGO esanik, naikotzat ematen du bere zeregiña, orixe egia da-eta. Baña Gramatikak ez du ola itz egiten, izatez eta yardutez ari diren «protestanteak» aipatzen dituta, ots, «Protestantes» (Luter, Melanchton, Butzer...) «son mayoría».

GAIZKA BARANDIARÁN

Emazu orain onela D): «La mayoría son protestantE». Gaizki dago. «La mayoría» izan ba'ledi norkia, aúreko B)'an bezela ongi legoke esanda. Beraz, zergati dago gaizki esanda? SON izanik aditza, askaéz dator asma-tuta, tan norkirik ez da bat ere askaéz. Beraz, gaizki dago esanda. Ezta ezin diteke ondo esan onela ere: «protestantE son la mayoría». Ar ditzagun esakun lau auek:

La mayoría es protestante (Ondo)
La mayoría son protestantes (Ondo)
La mayoría es protestanteS (Gaizki)
La mayoría son protestantE (Gaizki)

Lau esakun oyetan beti bat da «la mayoría». Alaz ere, «protestantes» esaten danean, aditza ez datorkio egoki. Beraz, SON aditza askaézkoa izanik, norkia askaéz bear da, ta «protestantes» da.

Lojikal bat geratzen da esakuna. «(Toda) la mayoría es (parte de los, algunos) protestante». Edota: «ALGO protestante es mayoría». Gramatikaz gaizki esaten da: «ProtestantE son la mayoría». Baña Lojikal ondo onela: «ALGO protestante es la mayoría».

Laburki esanda:

1) Lojikal DA(ES) beti da zergunari dagokana. Egia DA ala EZ DA.
2) Matematikaren DA(ES) beti da zenbat-ainbatekoa, ta neuí batekoa. Lojikal antza du. Berdiña, bayezkoa edo ezezkoa esatean, beti neuíarena da. Baña neuí abstraktu ta erabatekoa.

3) Gramatikaren DA (ES) beti da izatez eta yardutez adirazten duna. Baita Lojikal eta Matematikaz eziñekoa dan edozer ere, Gramatikaz esan diteke ta adigari da. Ironiaz eta aúduraz eta sikolojizko esanguraz, Lojikal eta Matematikaz alaxe itz egin ez afen, Gramatikaz esan diteke. Semiotikak, Matematika eredutzat dularik, Lojika ta Gramatika bategin nai ditu. Bañan eziñekoa da arazoa. Ikur utsak ez dire, ba, ikufitzak. Dena antzikuréz ezin diteke jakin. Adibidez, neo-positibismuaren eta nominalismuaren aurka beti esan diteke onela: landarea esatean, ikustez eta zentzumenez jakin ditekena ez ezik, bereala sortzen dire beste jakingari aunitz: uztardurak (relaciones) dire: landareak dan danean eta bere artan dun idekotasuna; beste landareekin dun bereizitasuna, idekotasuna ta antza; landareak jatofari buruz dun nundikotasuna; ta zertarakoa, tabar. Aristotel'ek berak, baita zentzumenekikoetan ere, *abstraktuaren* aipaera egiten du nolabait, «species sensibilis» zentzumenekoari deitzen dionean. Gogai abstraktuen *asiera* aipatzen ote du? Erabateko ta orobateko gogayeren lenbiziko ekitaldia gogarazten-edo du «species sensibilis» o'ek. Beraz, ez da dena zentzumenetan agortzen. Zentzumen utsa, ba, ez da gizona. Abere utsa, ba, ez da gizona.

B) ZENBAIT ETXE, ZENBAIT GIZON, ...

Onela esaten da Euskeraz: «zenbait etxetan». Ta ondo esaten da. Ez da, ordea, onela esaten: «zenbait etxean». Beraz, «zenbait» aska^{re}z (plural) erabiltzen da. Ez da erabiltzen baka^{re}z (singular).

«Zenbait etxetan» esatean, be^{ri}z, gramatikaren lege^z onelako ta alako etxeak dire. Onelakotxe ta alakotxe etxeak dire. Beralakoak eta bakoitzalakoak, (concretos) dire, DANIK edozer beralakoa ta bakoitzalakoa da-eta Batek ez daki «zenbait» esatean, edo ez du nai esaterik, «zeintzuek» diren banan banan. O^{re}gati, «zeingabeko, zeinbako» (indefinido) (ind^{efi}ni) dire.

Emazu esakun au: «zenbait etxe». Itz ori «etxe» gogayaren iku^{ra} edo iku^{ri}tza da. Berebat esaten dute Lojikkak eta Semiotikkak, iku^{ri}tza delakotzat ematean. Ba^ñan ez dute berebateko iku^{ri}tza danik ontzat ematen. Lenbizi, ba, azter dezagun, naasketarik sor ez dedin, Lojika'ren eta Gramatika'ren aldetik nola dan «etxe» itzaren esangura. Gero, be^{ri}z. Semiotikarenari gagozkioke.

Batek, «etxe» itza erabatekoa ta mugagabea dalakotzat emanik, «zenbait etxe e^{re} da», esaten ba'du, itz ori Lojikkarenean asmatzen du. O^{re}la esaten dunak, Lojikkara jotzen du. Lojikkaz da erabateko ta orobateko gogaya esakun ortan. Adimeneko gogaya da, beraz, «etxe» itza esakun ortan. Ta adimenean so^ñik du bere esangura erabateko ta orobatekoa. «Etxe» bezela, «a^{ri}, zugaitz, gizon, materia, zokodi...» adimeneko gogayak dire, erabateko gogai abstraktuak dire.

O^{re}zkeroz, «etxe» ori adimeneko izaki utsa da, adimeneko irudi bizki utsa da. Ez du aska^{re}zkorik, ez baka^{re}zkorik. Ez da askotzen, gogai bata besteari geyagotuta. Ezta gutxitzen ere. Lojikkaz, ba, «a^{ri} ta a^{ri} ta a^{ri}» beti «a^{ri}» da. Ez dire iru «a^{ri}». «Etxe ta etxe ta etxe ta etxe» ez dire be^ñola Lojikkaren beba^{ru}an «lau etxe». Adidunak (racional) baka^{ri}k aita dezake «etxe, a^{ri}, gizon...». Abere adigabeak ezin du «etxe» esan. O^{re}zkeroz, ezin ditezke Lojikkazko «etxe» gogai ori Gramatikazko «zenbait etxe» esakunean naastu. Alako gogayak, lojikkazko gogayak, adimenekoak utsik diren ezkerok, ez dire ez jasoten edo e^{re}tzen (etxea), ez jaurtitzen (a^{ri}a), ez ikutzen (gizona). Ez da be^ñola «etxe» lojikkazko gogaya e^{re}autsetan aldatuko, ez «a^{ri}» gurdian eroango, ezta ez du i^ñoren bekokirik ere odoletan ipi^ñiko. (Ixilpean entzuizu, ba, atzen au ere: abere utsa ez da gizona.)

«Zenbait etxe», ordea, Gramatikaren aldetik dator esana. Ta «zenbait» esatean, sinkategorema du, ta «etxe» oyek bakoitzalakoak eta beralakoak dire: «Toki Eder, Mentu, Ibardia, loro...» dire. Izatez eta yardutez (en realidad) zenbat diren —bat, bi, iru, lau...— esan ditezke. Batek ez daki oyen izenik. Batek ez daki lau edo amar direnik, ba^ñan onelakotxe ta alakotxe

etxeak dire. Efe ditezke etxe oyek. Ta «zenbait etxe efe dire», esanen degu. Ta «denak edeñak ziren», erantzungo degu. Ez, ordea, onela: «zenbait etxe efe da». Ta besteak: «denak edeñak ziren». Izan ditezke gorago aipaturikoak «Toki Eder, Mentu, Ibarbia, Loro», batek jakin ez añen «zeintzuek» izan diren. Beraz, «zeingabeko, zeinbako» esakuna da «Zenbait etxe», baña beti dire «zenbat». Beti dire «ainbat». Gramatikaz, ba, onelako neurñian ari gera izketan: zenbat-ainbat. Zenbat? galdetzen ba'da, ta Bat erantzun, bakañez aditzen degu. Zenbat? galdetzen ba'da, ta «zenbait» erantzun, bi gutxienik dire, ta beraz, askañez aditzen degu. Euskeraz ez bai da bikañezkorik.

Izkuntzak, noski, beratariko izkera du. Izkera izkuntza du. Baña Lojikkak bere izkuntza edun añen, ez du izkera izkuntzik. Lojikkak ere beratarikoa du, ta meta-izkuntza da. Matematikak ere beratariko izkuntza du, ta ez da izkera izkuntza. Matematikak ere meta-izkuntza du. Ofezkeroz, irutariko izkuntza oyetan, bata besteakin naastu gabe, itz egin bear degu.

Iñalak egin dituzte, gauzen legea zenbata zala Pitagor'ek esan zun ezkerro, Descartes'ek eta Leibniz'ek, eta orain Semiotika deritzan Jakintzak, Lojika ta Matematika bat egiteko. Baña lojikkazko zenbata ta matematikazko zenbata ez dire batbera. Lojikkaren neurñia ta kaizua (?) ta Matematikarena ez dire berdiñak. Ezta Etikarena ta Matematikarena ere ez dire berdiñak. Matematikaz 8 ta 1 ($8 + 1$) beti dire bederatzi ($8 + 1 = 9$). Bañan Etikaren neurñia ta erabidea onela da: moralezko egikun bat egitean, Ezaguera 8 ba'da, bañan Aukera edo Autamena 1 (bat) baldin ba'da, beñola ez da moralezko egikuna 9 ($8 + 1 = 9$), 1 (bat) baizik, onela: Ezaguera 8 + Autamena 1 = Moralezko egikuna 1 (bat).

Lojikkaren gogaya (concepto) bi eduetan edo kategorietan asmatzen da. Biko aurpegia du lojika gogayerak. Bata gogayaren «edaera» da, ta bestea, beñiz, «sakonera». Edaerak gogaibateko izakiak bilduman biltzen ditu. Sakonerak, beñiz, izakiaren bañunbea adirazten du, zergunaren (esencia) esangura du. Adibidez, «gizon» esatean, gogayaren edaerak edozein gizon, gizon denak, gizon oro besarkatzen ditu. Ta «gizon» esatean, sakonerak bere bi ezaugañuak adirazten ditu, au da, «adidun aberea» dala. Antxiñateko Lojikan bi edu ook elkar lotuta datoz, ta esangura bateko ikuña da «gizon» itza. Alere, ez da ikur utsa, Semiotikkak diñon bezela.

Matematikak, beñiz, ez du edu bat baizik. Naiko du edaera. Ez du sakonerarik. Lojikkak izate arian diardu. Matematikak, beñiz, zenbata ta kaizu arian. Matematikak «zer danik» ez du aztertzen. Zenbat danik ipintzen du ikuñatzetan edo sinboloetan. Adibidez, O(zero) Matematikan zenbata ta kaizu bat da. Onela: 0'01, 0'001, 0'0001... edo onela 10, 100, 1000... Kaizua da oyetan gegayo edo gutxiago dana. Zenbata neurtzen du. Baña Lojikan O(zero) egitan «utsa» da. Ez da ezer, ez da zerbait, utsa da, ezereza

EPISTEMOLOJIA, ELIZTIA (GRAMATIKA) TA MATEMATIKA

da. Izateko ayerge (contingente) dan izaki bat izateko utsa da, berez ezin da izatera jalki, ezerezatik ezereza datoñelako. Gogorazu beñolako esaera: ex nihilo nihil fit. Ezereza ta ezereza ta ezereza ta ezereza, ots, O ta O ta O ta O beti da «zero», ots, uts, eta uts, eta uts eta uts beti da UTS. Ementxe bat egiten dire Lojika ta Matematika. Baña bitariko utsa da bietan. Lojikkaz izatearen utsa da. Matematikarena, ordea, kaizu ta neuñiaren utsa. Ta Lojikkaz O (zero) beti uts gorotza geratzen dan bezela, Matematikaz beste zenbakiekin, gorago esan bezela, zenbat-ainbat da.

Lot gakiozan arazo oni beste sail batean. Lojikkak bi edutan asmatzen du gogaya: edaeran eta sakoneran. Esaterako, «gizon». Lojikkak gogai ofen edaera adirazten du, ots, edozein gizon, gizon guziak, «bilduma» batean ersten ditu. Baña «gizon» gogayaren sakonera ere adirazten du, bere «zergogaya» (concepto esencial) ere adirazten du. Edaera zabalago ta sakonera estuago da. Sakonera estuagotzen eta edaera zabalagotzen da. Lojika gogayaren legea alderantzizkoa da, ta bi neuñi ook alabeafoke dire: bata zabalago ta bestea estuago izan ditezen. Adibidez, Gotzon itzak Gizon itzak baño ezaugañu geyago ditu, bañan edaera gutxiago. Abere itzak Gizon itzak baño edaera zabalagoa du, bañan ezaugañu gutxiago. Biztun gogayak Abere gogayak baño edaera zabalagoa du, bañan ezaugañu gutxiago. Izatondoak (Sustancia) Landare gogayak baño edaera zabalagoa du, bañan ezaugañu gutxiago. Ta azkenik Izate gogayak Izatondo itzak baño edaera zabalagoa du, bañan ezaugañurik bakunena ta estuena du. Ofenbeste da Lojikkaren legea.

Lojikkaz edozetariko gogai ori guztiz «mugatua» (determinado) da. Zergogaya (concepto esencial) beti da mugatua (determinado), ta ofela, «gizon, landare, abere, izate» gogai mugatuak dire. Ezin diteke esan «mugagabeak» (indeterminados) direnik. Ondo mugatuak direnez, ba, Izatea ta Izatondoa bereizten ditugu, landarea ta aberea bereizten ditugu, ta aberea ta gizona bereizten ditugu. Bakoitzarekiko ezaugañuak beralakoak eta bakoitzalakoak dire. Bata «adidun aberea» ba'da, bestea adigabeko aberea da. Ofezkerok, batak pañegin dezake, besteak ez. Batak izkuntza asma dezake, besteak ez. Batak bere ezagutzez edozer Izate ikas dezake, besteak ez. Adidunak zer dan amar miñako zokodia, iru miña miñoikoa, iru miña miñoi ta batekoa, ta bikoia, ta irukoa, tabar... jakin ditzake. Beti zenbakien ofezkadari bat geyago ipin dezayokezu, iñoiz azkeneraño iritxi gabe, ta beti edozelako ofezkada oyen egia jakin dezake. Olakorik ez du adigabeko abereak. Abere utsa, ba, ez da gizona. Zentzumenak oyetan uts egiten du. Ezin du zentzumenak ainbatekoeñ irudi bizkiarik jaso, bañan adimenak «zer diren» ba daki, ba daki «zer izan ditekena» ere, ta ofezkada oyen bañeneko egia azter dezake, ta aztertu ez ezen, baita egiaz ziurki jabetu ere.

Ez da berdin mugagabea ta «zeingabea» izatea. «Zenbait gizon» esatean, «zeintzuek» direnik esan ez añen, bakoitzalakoak dire, beralakoak dire.

Zu-zeu zera «zeintzuek» direnik ez dakizuna, baña beti izanen dire Ibon, Aitziber, Edurne, Idoya... «Zeingabeak» dire zuretako, bañan izatez eta yartutez (en realidad) ba diren ezkerro, bakoitza guztiz mugatua da. Bakoitza da Ibon, bakoitza Edurne, bakoitza Idoya, bakoitza Aitziber.

Oraingo Semiotikak ikuñak uts utsik direla, diñosku, itzak. Itz utsak omen dire. Ez du gaurko nominalismu beñi onek aintzat ematen itzen edaera baizen. Itzen edo gogayen «ezaugañurik» beren sakonera aldetik ez du onartzen. Beraz, «gizon, zugaitz, ari...» itz utsak dire. Itz bakoitzak «bilduma» bat soilki adirazten digu. Adirazi, beñiz, gauza piño baten ikuñitz utsa gogarazten digu. Ockham'en aldiko nominalismua beñiro sortua izan da gaurko Semiotikan, eta Aristotel'en Lojika Matematikaren bidez gaurko Lojistikan naastu nai dute. Bitartean ipin ezazu Enpirismua ta oraintsuko Neo-positibismua, ta bereala ulertuko dezu Semiotikarena.

Enpirismuaren arabera, dena den dena zentzumenen bidez ezagutzen da. Zentzumenekikoa da dena. Zentzumenekikoen piñaketa utsa da Adimenekoa. Bestelako ezagutzerik ez da. Zentzumeneko irudi bizkien naasketa añigaria besterik ez da ezagutzea. Zentzumenek diñoena baño aruntzagokorik ez du ezagutzen gizonak. Ezta geyagorik ere. Lojikaren ezaugañurik ezagutzen ez dan ezkerro, gauzen bilduma soilak baizen ez ditu ezagun gizonak. Metafisikarik ez da. Dena naiko da Fisika izatea, ta Fisika legeak baizen ez da bestelakorik. Fisika, beñiz, Gramatikaren bidez adirazten dan ezkerro, dena Gramatikaren legetan akitzen da, biltzen da, agortzen da.

Neo-positibismu onen oñariari ba'zagoka, «zenbait gizon» esakunean gorago esaniko iritzia berealakoan ageri da. «Gizon» esatean, ba, ezaugañurik eta sakonerarik aintzat ematen ez diren ezkerro, edaera soilik geratzen da zutik. Edaera, ortan, beñiz, onelako mailak dituzu: Ibon esaten ba'dezu, bakoitza ta bakoitzalakoa ezaguerazten dezu. «Zenbait gizon» ba' diñozu, bai «gizon» aldetik, bai «zenbait» sinkategorema aldetik, gizon «batzuek» dituzu oyek. Zentzumenak ezagutzen dun «gizonik» baizen, ba, ez da, ta bakoitzalakoa ta beralakoa da. «Zenbait» sinkategoremak ez dizu esaten Bat bakaña danik, ez Denak direnik. Iru maila, beraz, auetxek dire: bakoitzarena, zenbaitena (ain zuzen), danena.